



PRENTSA OHARRA: 2025.03.21

17 euskal ekoizpen ikusgai Nantesko FCEN zinemaldian

- Euskal zineari eskainitako Fenêtre Basque zikloak bederatzi film luze, serie bat eta Kimuak 2024 programako zazpi film labur erakutsiko ditu

- ‘Azken Erromantikoak’ euskarazko filma sail lehiakorrean izango da, gaur hasi eta martxoaren 29ra bitarte egingo den FCENen

- Joxean Fernandez Euskadiko Filmategiko zuzendariak idatzi eta Etxepare Euskal Institutuak argitaratutako euskal zinemari buruzko liburua aurkeztuko da bertan

Nantesko Festival du Cinéma Espagnol (FCEN) jaialdiaren baitan egiten den [Fenêtre Basque](#) (Euskal Leihoa) zikloak 24 edizio beteko ditu aurtan. Etxepare Euskal Institutuak, Euskadiko Filmategiaren laguntzarekin, sustatzen duen sail hau Euskal Herritik kanpo aurki daitekeen euskal zinema programazio sendoenetakoa da, eta urtero euskal urteko euskal ekoizpen nabarmenen eta, oro har, euskal zinemagile garrantzitsuenen lanen hautaketa bat proposatzen du.

Aurtengo edizioan, guztira, **17 euskal ekoizpen izango dira Nantesen martxoaren 21etik 29ra egingo den zinema-jaialdian**. Horietatik, bederatzi film luze eta Kimuak 2024ko programako zazpi film labur Fenêtre Basque zikloan proiektatuko dira. Euskal zinemari propio eskainitako zikloa osatzen duten euskal produkzioez gain, euskal zinemak presentzia nabarmena izango du FCENen 34. edizioan; izan ere, bi film luze sail lehiakorrean arituko dira eta, horrez gain, euskal zinemak beste sail batzuk zipriztinduko ditu.

Sail ofizialean, lehiatuko dira ‘**Marco**’ (Jon Garaño eta Aitor Arregi) eta ‘**Azken Erromantikoak**’ (David Perez Sañudo). ‘Marco’ filmak hainbat sari irabazi zituen Veneziako Mostrako iragan edizioan; ‘Azken Erromantikoak’ berriz jatorrizko

bertsioan, euskaraz, proiektatuko da Nantesen, eta Donostiako Zinemaldian ere ikusi ahal izan zen.

Dokumental onenaren saria eskuratzeko norgehiagokan, beste bi euskal ekoizpen aurki daitezke: **‘Los Williams’** (Raul de la Fuente) eta **‘Chaplin, espíritu gitano’** (Carmen Chaplin). Izaera desberdina duten bi istorio dakartzate filmek; bi anaia futbolariren istorioa, batetik; zinemako jenio batena, bestetik.

Fenêtre Basque 2025

Fenêtre Basque atalean, bederatzi luze izango dira guztira. Arestian aipatutako lau horiez gain, honako hauek ere ikusi ahal izango dira: Pello Gutierrez zuzendariaren **‘Erreplika’** dokumentala proiektatuko da, zeinak irudien gabezia eta memoria pertsonala aztertzen baitituen. **‘Tratamos demasiado bien a las mujeres’** Clara Bilbaoren apustu ausarta da filme historikoei buelta emateko eta beste genero batzuekin jolasteko. Paul Urkijoren **‘Irati’** filmak, euskarazko zinemaren historian errentagarrien izan den pelikulak, euskal mitologiaren mundura garamatza. Euskal zinemaren historiaren izen propio bat, benetako klasiko unibertsal bat, ere izango da Nantesen: **‘Tasio’**, Montxo Armendarizen film ezaguna. Euskadiko Filmategiak zaharberitutako kopia Cannesko jaialdiko eta Donostiako Zinemaldiko azken edizioetan izan zen, eta orain bigarren bizitza bat izaten ari da. Azkenik, aurtengo Malagako Zinemaldiko sail ofizialean dagoen **‘Los aitas’** Borja Cobeagaren filmak itxiko du aurtengo FCEN.

Gainera, Fenêtre Basque-ren baitan, aurreko edizioetan bezala, Etxepare Euskal Institutuak sustatzen duen **Kimuak 2024** katalogoan jasotako film labur batzuk ere ikusi ahal izango dira: Izibene Oñederraren **‘Etorriko da’**; Joana Moyaren **‘Todo lo cubre la sal’**; Jorge Moneoren **‘Exergo’**; Koldo Almandozen **‘Dinosaurioak’**; Alba Lozanoren **‘Utländsk’**; Iratxe Fresnedaren **‘Errotatiba’** eta Aitor Abioren **‘Patrimonio’**.

Euskal ikus-entzunezkoek izango duten presentzia nabarmenaren erakusgarri, aurtan, FCENek Frantzian orain arte ikusi gabeko serieen atalean, Alauda Ruiz de Azuaren **‘Querer’** proiektatuko du.



Gainera, euskal zinemaren erakusleihu zabal eta heterogeneo honen osagarri gisa, hainbat gonbidatu gerturatuko dira Nantesera egunotan, hala nola, David Perez Sañudo, Jon Garaño, Clara Bilbao, Pello Gutierrez edota Montxo Armendariz.

‘Basque. Zinema’ liburuaren aurkezpena

Etxepare Euskal Institutuak bultzatu eta argitaratu duen liburu-bilduma da ‘Basque’; hamabi kultur-adierazpideren ardatzean osatutako hamabina ale. Bildumak euskara, euskal kultura eta sorkuntzaren berri ematea du xede, eta euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta fransesez dago euskuragai etxepare.eus webgunean.

FCENen testuinguruan aurkeztuko den ‘Basque. Zinema’ lehen aldiz 2012an argitaratu zen liburuaren eguneratzea da. Orduan bezala, orain ere, Joxean Fernandez Euskadiko Filmategiko zuzendariak burutu du liburuaren berridazketan azken urteetako gertakari eta ekoizpen nabarmenei erreparatuz.

Martxoaren 22an, arratsaldean, Nantesen egingo den Rencontre Cinéma Basque mahainguruan aurkeztuko dute liburua Irene Larraza Etxepare Euskal Institutuko Zuzendari Nagusiak eta Joxean Fernandez liburuaren egile eta Euskadiko Filmategiko buruak.

Jaialdiari buruz

1990ean sortu zen Festival du Cinéma Espagnol de Nantes (FCEN) jaialdiaren helburua da Espainiako Estatuan egindako zinea Frantzian zabaltzea eta horretarako emanaldi zinematografikoez gain ekitaldi ezberdinak antolatzen dituzte jaialdiak irauten duen bitartean: mahai-inguruak, arte erakusketak,

kontzertuak, etab. Urtero 27.000 ikusletik gora biltzen ditu jaialdiak, baita kritikari eta industriako profesionalak ere.

Nantes da euskal zinema gehien aintzat hartu eta erakutsi duen Europako hirietako bat. Horrela, Fenêtre Basque atalak 24 urte beteko ditu aurten.

Urteotan, euskal zinemako izen handiak pasa dira bertatik euren lanak aurkeztu eta publikoarekin solasean aritzeko.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeko egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

FENETRE BASQUE 2025

Sail ofiziala, lehian

- ‘Marco, l’énigme d’une vie’ (Aitor Arregi, Jon Garaño, 2024)
- ‘Azken Erromantikoak’ (David Perez Sañudo, 2024)

Dokumental onenaren saria

- ‘Chaplin, espíritu gitano’ (Carmen Chaplin, 2024)
- ‘Los Williams’ (Raúl de la Fuente, 2024)

Film luzeak

- ‘Erreplika’ (Pello Gutierrez, 2024)
- ‘Irati’ (Paul Urkijo, 2022)



**ETXEPARE
EUSKAL
INSTITUTUA**

- ‘Los aitas’ (Borja Cobeaga, 2025)
- ‘Tasio’ (Montxo Armendariz, 1984)
- ‘Tratamos demasiado bien a las mujeres’ (Clara Bilbao, 2024)

Kimuak 2024

- ‘Dinosaurioak’, (Koldo Almandoz)
- ‘Errotatiba’ (Iratxe Fresneda)
- ‘Etorriko da’ (Izibene Oñederra)
- ‘Exergo’ (Jorge Moneo)
- ‘Patrimonio’ (Aitor Abio)
- ‘Todo lo cubre la sal’ (Joana Moya)
- ‘Utländsk’ (Alba Lozano)

Beste euskal ekozipen batzuk

- ‘Querer’ seriea (Alauda Ruiz Azua, 2024)

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera | Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus